

## ESKOLA KIROLA- ESKUBALOI ARAUDIA 2015-2016

	<b>BENJAMINAK LH3-4</b>	<b>ALEBINAK LH5-6</b>
<b>JOKALARI KOPURUA</b>	4 + atezaina	5 + atezaina
<b>ALDAKETAK</b>	Aldaketak atsedenaldietan bakarrik egingo dira, jokalariren batek min hartuz gero izan ezik. Kasu hauetan, gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da, baina ez da aktan apuntatuko.	
<b>JOKA DAITEZKEEN ZATI KOPURUAK</b>	Gehien eta gutxien jokatu duten jokalariren artean, gehienez zati baten aldea egon daiteke, (luzapenak barne). <i>Adibidez, taldekideren batek 4 zatiak jokatu baldin baditu, beste guztiek 3 zati jokatu behar dituzte.</i>	
<b>ATEZAINAK</b>	Gehienez 2 zati joka ditzake atezain gisa. <i>(4 zatiak joka ditzake, baina 2 atezain eta 2 jokolari moduan izan behar du, eta gogoratu kasu honetan, beste taldekide guztiek 3 zati jokatu beharko dituztela).</i>	
<b>IRAUPENA</b>	10 minutuko 4 zati. (4 x 10)	
<b>ATSEDENALDIAK</b>	3 minutukoak	
<b>PARTIDUKO AZKEN EMAITZA</b>	Lehen bi zatietan gol gehien sartu dituen taldeari puntu bat emango zaio edo berdinketa egon bada, ez da punturik emango. Azken bi zatietan gol gehien sartu dituen taldeari puntu bat emango zaio edo berdinketa egon bada, ez da punturik emango. Beraz azken emaitza posibleak, honako hauek izango dira: 0-0 / 1-0 / 0-1 / 1-1 / 2-0 / 0-2	Partidu amaierako golen arabera.
<b>DEFENTSA</b>	Onartutako defentsak irekiak (2:2) eta banakakoak izango dira. Ezin da defentsa misto eta itxirik (4:0 / 3:1) egin. Defentsa norberaren zelaian bakarrik onartuko da eta BULTZATZEA debekatua dago.	Onartutako defentsak irekiak (3:2 / 2:3) eta banakakoak izango dira. Ezin da defentsa misto eta itxirik (5:0 / 4:1) egin. Defentsa norberaren zelaian bakarrik onartuko da eta BULTZATZEA debekatua dago.
<b>ZIGORRAK</b>	Epaileak hala baderitzo, minutu bateko kanporaketa agindu dezake. Adibidez BULTZATZEN bada. Defentsa itxia egiten duten taldeari, aurrenekoan abisua emango dio epaileak, bigarren abisuan, penaltia ahalbidetuko zaio aurkako taldeari eta baloi jabetza.	
<b>TXAPELKETA MODUA</b>	Ez dago txapelketarik	Txapelketako irabazlea, liga modura erabakiko da.

# ESKOLA KIROLA - SASKIBALOI ARAUDIA 2015-2016

	<b>BENJAMINAK LH3-4</b>	<b>ALEBINAK LH5-6</b>
<b>JOKALARI KOPURUA</b>	4 jokalaria	<b>4</b> jokalaria
<b>ALDAKETAK</b>	Aldaketak atsedenaldietan bakarrik egingo dira, jokalariren batek min hartuz gero izan ezik. Kasu hauetan, gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da, baina ez da aktan apuntatuko.	
<b>JOKA DAITEZKEEN ZATI KOPURUAK</b>	Gehien eta gutxien jokatu duten jokalarien artean, gehienez zati baten aldean egon daiteke, (luzapenak barne). <i>Adibidez, taldekideren batek 6 zatiak jokatu baldin baditu, beste guztiek 5 zati jokatu behar dituzte.</i>	
<b>IRAUPENA</b>	7 minutuko 6 zati. (7 x 6)	
<b>ATSEDENALDIAK</b>	Minutu 1	
<b>SAKEAK</b>	<b>Hasierako sakea salto da. Saskiraketen ondoren sakeak saskiaren behekaldeetik aterako dira. Partiduaren azken minutuan sakeak erasoko zelaian izango dira.</b>	
<b>PARTIDUKO AZKEN EMAITZA</b>	Saskiraketa kopuruaren arabera. Berdinketak onartu egiten dira. <b>Ez da hiruko punturik emango.</b>	Saskiraketa kopuruaren arabera. Berdinketa dagoen kasuetan, 4 minutuko zatiak jokatu dira, irabazlea egon arte. <i>(Luzapenean aktan agertzen diren jokalariek jokaturako zati kopuruak kontutan izan behar dira).</i> <b>Ez da hiruko punturik emango.</b>
<b>DEFENTSA</b>	Onartutako defentsa bakarra indibiduala da. Edozein modutan jokoaren eten ondoren (saskiratzea, faltak, baloia zelaitik irtetea...), defentsa norberaren zelaian hasiko da.	
<b>FALTAK</b>	Faltak <b>ASKO</b> pitatuko dira, falta egiteko ohitura mozte aldera. Falta bakoitzeko ez da tiro libre bat ahalbidetuko. Zati bakoitzeko, <b>seigarren</b> faltatik aurrera, tiro libre bat jaurtitzeko aukera ahalbidetuko zaie, erreboterik gabe eta baloi jabetza emanaz. <b>Jaurtiketa librea kanasta azpitik 4 pausotara botako da.</b>	Faltak <b>ASKO</b> pitatuko dira, falta egiteko ohitura mozte aldera. Falta bakoitzeko ez da tiro libre bat ahalbidetuko. Zati bakoitzeko, <b>laugarren</b> faltatik aurrera, tiro libre bat jaurtitzeko aukera ahalbidetuko zaie, erreboterik gabe eta baloi jabetza emanaz.
<b>ZIGORRAK</b>	Jokalaria batek 5 falta egiten baditu, kaleratua izango da eta bere ordean, ordurarte gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da ( <i>aktan</i> )	

# **ESKOLA KIROLA - SASKIBALOI ARAUDIA 2015-2016**

	<i>ez da apuntatuko).</i> Kiroltasunik gabeko falta denean, jautiketa libre eta baloi jabetza ahalbidetuko zaizkio aurkariari.	
<b>TXAPELKETA MODUA</b>	Ez dago txapelketarik	Txapelketako irabazlea, kanporaketa bidez erabakiko da, final laurden eta finalekin.